# ISEI - IVEI

## Rs4. EMAITZA AKADEMIKOEN BILAKAERA DERRIGORREZKO HEZKUNTZAN

ISEI·IVEI

ISEI·IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACION, POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

**Edizioa: 2013ko abendua**
**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**
Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**LANTALDEA**
Araceli de Francisco
Mª Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**
Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**
Eduardo Ubieta

| | |
|---|---|
| **Sarrera** | **4** |
| **Rs4.1 taula eta grafikoa: LHko 6. mailan, DBHko 2. eta 4. mailan matrikulatutako ikasle kopuruaren bilakaera, promozionatzen edo titulua lortzen duten ikasleen ehunekoa eta arlo guztiak gainditzen dituztenen ehunekoa. 2000-01 ikasturtetik 2011-12 ikasturtera.** | **6** |
| **Rs4.2 taula eta grafikoak: LHko 6. mailan eta DBHko 2. eta 4. mailetan promozionatzen duten ikasleen ehunekoaren bilakaera eta arlo guztiak gainditzen dituztenen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera. 2000-01 ikasturtetik 2011-12 ikasturtera.** | **7** |
| **Rs4.3.1 taula eta grafikoa: LHko 6. mailan eta DBHko 2. eta 4. mailetan promozionatzen edo titulua lortzen duten ikasleen ehunekoaren bilakaera, geruzen arabera (sare publikoa). 2000-01 ikasturtetik 2011-12 ikasturtera.** | **8** |
| **Rs4.3.2 taula eta grafikoa: LHko 6. mailan eta DBHko 2. eta 4. mailetan promozionatzen/titulua lortzen duten ikasleen ehunekoaren bilakaera, geruzen arabera (itunpeko sarea). 2000-01 ikasturtetik 2011-12 ikasturtera.** | **9** |
| **Rs4.4 taula eta grafikoa: LHko 6. mailan eta DBHko 2. eta 4. mailetan eskolatuta dauden ikasleen artean, ebaluazio diagnostikoetan neurtutako konpetentzia finkoei zuzen loturiko arloetan egoki aurreratzen/gainditzen duten ikasleen ehunekoa. 2000-01 eta 2011-12 ikasturteen arteko bilakaerari buruzko datuak.** | **10** |

## LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAKO, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILAKO ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO EMAITZA AKADEMIKOEN ARTEKO KONPARAZIOA, 2001-2012 ALDIAN PROMOZIONATU DUTEN ETA IRAKASMAILA GAINDITU DUTEN IKASLEEN EHUNEKOEN ARABERA.

Adierazle honek ikasleek, 2001etik 2012ra, LHko 6. maila, DBHko 2. maila eta DBHko 4. maila bukatutakoan arloetan eta orokorki lortutako emaitza akademikoen bilakaerari buruzko informazioa ematen du, honako aspektu hauek kontuan izanik: promozioa[1]/gainditua[2], sexua, irakasteredua[3] eta hezkuntza-sarea[4] (geruza).

Hurrengo irakasmailara promozionatzen duten ikasleen ehunekoa hazi egin da hiru irakasmailetan, oro har (LH) Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek (DBH) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailako ikasleek baino proportzio handiagoan promozionatzen duten arren. 2001ean, hain zuzen ere, LHko 6. mailan ikasleen %95ek promozionatu zuen, DBHko 2. mailan %85ek eta DBHko 4. mailan, ikasleen %81ek. 2012an LHko 6. mailan %97k promozionatu zuen; DBHko 2. mailan, %89k; eta DBHko 4. mailan, %91k. Beraz, promozionatzen duten ikasleen ehunekoaren hazkundea ikusten da etapa guztietan, eta aztertutako hiru irakasmailetako promozio tasen arteko aldea murriztu egin da.

Irakasmaila arlo eta irakasgai guztiak gainditpuzta bukatzen duten ikasleen ehunekoa aztertzen dugunean, ehunekorik handiena LHko 6. mailan izaten dela ikus daiteke, hurrengoa DBHko 4. mailan eta apalena, DBHko 2. mailan. Hiru irakasmailetan arlo guztiak gainditzen dituzten ikasleen ehunekoak goranzko joera du urteetan zehar, eta hiru irakasmailetako ehunekoen arteko aldeak murrizteko joera du; hartara, 2001ean arlo guztiak gainditu zituzten ikasleen ehunekoa honako hau izan zen: LHko 6. mailan, %75; DBHko 4. mailan, %59; eta DBHko 2. mailan, %52. Ehunekoa 2012an LHko 6. mailan hiru puntu hazi zen (%78); DBHko 4 mailan 10 puntu hazi zen (%69); eta DBHko 2. mailan 13 puntu hazi zen (%65).

Sexu aldagaiaren araberako analisiak erakusten du promozionatzen duten nesken ehunekoa eta arlo guztiak gainditzen dituzten nesken ehunekoa mutilen ehunekoak baino handiagoak izan direla hiru irakasmailetan eta ikasturte guztietan zehar. Hala ere, promozio tasari dagokionez, aldeak ez dira oso handiak izan: LHko 6. mailan aldea 1 edo 2 puntukoa baino ez da izan; DBHko 2. eta 4. mailan aldeak 2 eta 8 punturen artekoak izan dira, azken ikasturteotan beheranzko joera izan delarik. Hala ere, arlo guztiak gainditzen dituzten nesken ehunekoaren eta mutilen ehunekoaren arteko aldea handiagoa izan da: LHko 6. mailan eta DBH 4. Mailan 7-12 puntukoa izan da; eta DBHko 2. mailan, 10-19 puntukoa.

---

[1] Promozioa: irakasmaila/ziklo/etapa bat bukatutakoan ikaslea hurrengo goragoko irakasmaila/ziklo/etapara doa, arlo guztiak gaindituturik ez dituen arren.

[2] Gainditua/gai: irakasmaila/ziklo/etapa bat bukatutakoan ikaslea hurrengo goragoko irakasmaila/ziklo/etapara doa, arlo guztiak gaindituta dituelarik.

[3] A eredua: Curriculum-arlo guztiak gaztelaniaz irakasten dira, Euskal hizkuntza eta literatura izan ezik, euskaraz irakasten baita.
B eredua: curriculum-arloen % 50 gutxi gora behera gaztelaniaz irakasten dira, eta beste erdia, euskaraz. (Ehunekoa aldatzen da ikastetxe batetik bestera)
D eredua: Curriculum-arlo guztiak euskaraz irakasten dira, Gaztelania eta literatura izan ezik, gaztelaniaz irakasten baita. .

[4] Sareak: Euskadin bi hezkuntza-sare daude batera, publikoa eta itunpekoa, derrigorrezko etapetan biak diru publikoarekin finantzatuak.

Datuak geruzen arabera aztertzean, promozio-tasarik altuenak hiru irakasmailetan (LHko 6. maila, DBHko 2. eta 4. mailak), bai sare publikoan baita itunpekoan ere, D ereduan izan direla ikusten da. Sare publikoko LHko 6. mailako A eta B ereduetan izan ezik, gainontzeko geruza guztietan promozio tasa ikasturteetan zehar hazi egin da. 2011-2012 ikasturtean, promozio tasa sare publikoko DBHko 4. mailako A ereduko %64etik itunpeko sareko LHko 6. mailako A eta D irakastereduetako %98ra doa, batez bestekoa %89 izanik.

Aztertu diren hiru arloei dagokienez, 2001-2012 aldian Euskal Hizkuntza gainditzen duten ikasleen ehunekoa eta Gaztelania gainditzen dutenen ehunekoa antzerakoak dira DBHko 2. eta 4. mailan, eta Matematika gainditzen dutenen ehunekoa baino handiagoak. LHko 6. mailan Euskal Hizkuntza gainditzen dutenen ehunekoa eta Matematika gainditzen dutenen ehunekoa antzerakoak dira, Gaztelania gainditzen dutenen ehunekoa baino txikiagoak.

2001-2012 aldiko bilakaera positiboa izan da eta, oro har, egonkorra hiru arloetan eta hiru irakasmailetan. DBHko 2. eta 4. mailetan hiru arloetako hazkundea antzerakoa izan da (8-11 puntu bitartekoa), eta LHko 6. mailako hazkundea 4-6 puntu bitartekoa izan da. LHko 6. mailan arlo guztiak gainditzen dituzten ikasleen ehunekoak DBHko irakasmailetakoak baino handiagoak izan dira hiru arloetan eta aztertutako aldi osoan zehar, Euskal Hizkuntzan izan ezik, DBHko 4. mailan ehunekoa handiagoa baita.

.

## Rs4.1 taula eta grafikoa:

**LHko 6. mailan, DBHko 2. eta 4. mailan matrikulatutako ikasle kopuruaren bilakaera, promozionatzen[5] edo titulua lortzen duten ikasleen ehunekoa eta arlo guztiak gainditzen dituztenen ehunekoa[6]. 2000-01 ikasturtetik 2011-12 ikasturtera.**

| | LH 6 | | | DBH 2 | | | DBH 4 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasturtea | Matrikulatuak (K) | **Prom. (%)** | Egoki aurr. (%) | Matrikulatuak (K) | **Prom. (%)** | Gai (%) | Matrikulatuak (K) | **Tituludunak (%)** | Gai (%) |
| 2000-2001 | 17230 | **94,9** | 74,8 | 20745 | **85,3** | 52,2 | 20468 | **80,6** | 58,7 |
| 2001-2002 | 17024 | **94,9** | 74,7 | 20371 | **85,2** | 53,6 | 19503 | **81,4** | 59,2 |
| 2002-2003 | 17182 | **95,4** | 75,7 | 19492 | **84,8** | 53,0 | 18183 | **82,4** | 58,9 |
| 2003-2004 | 16945 | **96,0** | 76,5 | 18982 | **84,7** | 58,2 | 17799 | **85,7** | 63,7 |
| 2004-2005 | 16710 | **96,1** | 76,9 | 17349 | **91,6** | 63,3 | 15271 | **86,8** | 63,9 |
| 2005-2006 | 16445 | **96,4** | 78,4 | 17649 | **88,4** | 63,7 | 15015 | **86,7** | 64,1 |
| 2006-2007 | 16562 | **96,6** | 78,3 | 18070 | **88,6** | 62,1 | 14867 | **87,2** | 64,8 |
| 2007-2008 | 17362 | **96,3** | 77,3 | 17689 | **89,0** | 63,2 | 14944 | **89,7** | 66,6 |
| 2008-2009 | 17762 | **96,1** | 77,8 | 17673 | **89,1** | 63,6 | 14839 | **89,5** | 65,9 |
| 2009-2010 | 17743 | **96,6** | 76,8 | 18183 | **90,0** | 65,9 | 14405 | **91,1** | 69,2 |
| 2010-2011 | 18494 | **96,5** | 77,2 | 18514 | **89,8** | 65,7 | 14602 | **91,2** | 69,4 |
| 2011-2012 | 19320 | **96,9** | 77,7 | 18598 | **89,1** | 64,7 | 15298 | **90,7** | 69,2 |




Iturria: Hezkuntza Ikuskaritza. Eskola-emaitzak 2001-2012.

[5] Promozionatzen duten ikasleak (Prom.): LHko 6. mailaren bukaeran (DBH) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailara pasatzen diren ikasleak edo DBHko 2. maila bukatutakoan DBHko 3. mailara pasatzen diren, arlo guztietan aurrerapen egokia izan ez duten arren

[6] Egoki aurreratzen duten ikasleak ( Egoki Aurr.)/Gai=Gainditua: LHko 6. maila /DBHko 2. maila bukatzean arlo guztietan ebaluazio positiboa izan duten ikasleak.

## Rs4.2 taula eta grafikoak:

**LHko 6. mailan eta DBHko 2. eta 4. mailetan promozionatzen duten ikasleen ehunekoaren bilakaera eta arlo guztiak gainditzen dituztenen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera. 2000-01 ikasturtetik 2011-12 ikasturtera.**

| | LH 6 | | | | DBH 2 | | | | DBH 4 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Prom. | | Guztia gaindituta | | Prom. | | Guztia gaindituta | | Tituludunak | | Guztia gaindituta | |
| | Neska | Mutila | Neska | Mutila | Neska | Mutila | Neska | Mutila | Neska | Mutila | Neska | Mutila |
| 2000-2001 | 95,8 | 94,1 | 80,2 | 69,8 | 89,4 | 81,8 | 62,3 | 43,5 | 84,2 | 77,0 | 64,5 | 53,1 |
| 2001-2002 | 96,1 | 93,8 | 80,0 | 69,7 | 89,3 | 81,6 | 63,3 | 45,0 | 84,6 | 78,1 | 64,2 | 54,1 |
| 2002-2003 | 96,4 | 94,5 | 80,6 | 71,1 | 89,4 | 80,8 | 62,4 | 44,7 | 85,5 | 79,3 | 64,2 | 53,8 |
| 2003-2004 | 96,8 | 95,3 | 81,8 | 71,6 | 88,8 | 81,2 | 67,7 | 49,8 | 87,9 | 83,5 | 69,4 | 57,9 |
| 2004-2005 | 97,1 | 95,1 | 81,8 | 72,3 | 93,3 | 90,1 | 70,1 | 57,0 | 89,6 | 83,9 | 70,0 | 57,6 |
| 2005-2006 | 97,3 | 95,6 | 82,7 | 74,4 | 91,1 | 85,8 | 69,7 | 58,1 | 88,8 | 84,4 | 69,1 | 58,8 |
| 2006-2007 | 97,3 | 96,0 | 82,4 | 74,5 | 91,1 | 86,4 | 68,8 | 56,1 | 89,6 | 84,8 | 69,7 | 59,9 |
| 2007-2008 | 97,1 | 95,7 | 81,6 | 73,3 | 92,1 | 86,2 | 69,8 | 57,2 | 91,5 | 87,8 | 71,1 | 62,1 |
| 2008-2009 | 97,0 | 95,3 | 82,7 | 73,2 | 91,3 | 87,2 | 69,3 | 58,5 | 91,4 | 87,7 | 70,4 | 61,4 |
| 2009-2010 | 97,3 | 96,0 | 81,4 | 72,5 | 92,3 | 87,8 | 71,3 | 61,0 | 92,4 | 89,7 | 73,0 | 65,3 |
| 2010-2011 | 97,1 | 95,8 | 82,4 | 72,4 | 92,1 | 87,7 | 71,1 | 60,7 | 92,8 | 89,6 | 73,3 | 65,5 |
| 2011-2012 | 97,4 | 96,3 | 82,6 | 73,2 | 91,1 | 87,4 | 70,0 | 59,7 | 92,5 | 88,8 | 73,5 | 64,9 |







Iturria: Hezkuntza Ikuskaritza. Eskola-emaitzak 2001-2012.

## Rs4.3.1 taula eta grafikoa:

**LHko 6. mailan eta DBHko 2. eta 4. mailetan promozionatzen edo titulua lortzen duten ikasleen ehunekoaren bilakaera, geruzen arabera (sare publikoa). 2000-01 ikasturtetik 2011-12 ikasturtera.**

| | Sare publikoa | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | LH 6 | | | DBH 2 | | | DBH 4 | | |
| | A eredua | B eredua | D eredua | A eredua | B eredua | D eredua | A eredua | B eredua | D eredua |
| 2000-2001 | 91,8 | 94,4 | 95,1 | 73,0 | 81,4 | 85,6 | 66,0 | 75,0 | 82,5 |
| 2001-2002 | 91,2 | 93,0 | 95,3 | 70,6 | 78,0 | 85,4 | 65,6 | 76,7 | 82,3 |
| 2002-2003 | 89,8 | 92,4 | 96,3 | 68,3 | 79,0 | 85,5 | 67,5 | 79,6 | 83,4 |
| 2003-2004 | 91,7 | 94,6 | 96,8 | 68,2 | 74,2 | 85,4 | 68,0 | 80,8 | 85,2 |
| 2004-2005 | 89,8 | 94,2 | 96,5 | 79,4 | 87,4 | 91,8 | 68,5 | 82,2 | 87,3 |
| 2005-2006 | 93,9 | 95,3 | 96,7 | 68,7 | 79,3 | 89,6 | 66,7 | 81,6 | 86,8 |
| 2006-2007 | 90,1 | 96,1 | 96,8 | 71,7 | 81,4 | 89,3 | 64,5 | 82,7 | 88,1 |
| 2007-2008 | 87,1 | 94,4 | 96,8 | 70,8 | 82,6 | 88,6 | 65,8 | 87,2 | 91,6 |
| 2008-2009 | 89,1 | 94,3 | 96,2 | 74,3 | 83,5 | 88,7 | 67,4 | 82,0 | 90,2 |
| 2009-2010 | 90,5 | 94,0 | 96,8 | 78,2 | 81,3 | 88,9 | 69,9 | 85,5 | 91,7 |
| 2010-2011 | 90,1 | 94,5 | 96,8 | 69,3 | 80,8 | 89,6 | 68,3 | 84,0 | 92,1 |
| 2011-2012 | 92,9 | 94,7 | 96,9 | 69,2 | 76,8 | 87,8 | 64,3 | 82,8 | 91,4 |




Iturria: Hezkuntza Ikuskaritza. Eskola-emaitzak 2001-2012.

## Rs4.3.2 taula eta grafikoa:

**LHko 6. mailan eta DBHko 2. eta 4. mailetan promozionatzen/titulua lortzen duten ikasleen ehunekoaren bilakaera, geruzen arabera (itunpeko sarea). 2000-01 ikasturtetik 2011-12 ikasturtera.**

| | Itunpeko sarea | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | LH 6 | | | DBH 2 | | | DBH 4 | | |
| | A eredua | B eredua | D eredua | A eredua | B eredua | D eredua | A eredua | B eredua | D eredua |
| 2000-2001 | 95,4 | 95,5 | 95,5 | 85,8 | 89,1 | 90,6 | 81,3 | 82,8 | 88,8 |
| 2001-2002 | 95,0 | 95,2 | 96,9 | 86,7 | 88,8 | 91,3 | 81,7 | 84,0 | 89,8 |
| 2002-2003 | 95,6 | 96,0 | 97,0 | 86,1 | 87,8 | 90,8 | 83,7 | 82,4 | 87,8 |
| 2003-2004 | 95,2 | 96,5 | 97,1 | 86,3 | 87,7 | 92,0 | 86,9 | 88,6 | 92,2 |
| 2004-2005 | 95,9 | 96,1 | 98,1 | 92,1 | 93,5 | 95,5 | 86,5 | 88,6 | 93,0 |
| 2005-2006 | 96,0 | 95,9 | 97,8 | 88,5 | 91,0 | 93,9 | 86,2 | 90,1 | 92,4 |
| 2006-2007 | 96,8 | 96,3 | 98,3 | 89,3 | 90,3 | 93,5 | 86,3 | 91,2 | 91,9 |
| 2007-2008 | 97,3 | 96,6 | 98,2 | 88,8 | 92,8 | 93,8 | 88,9 | 91,3 | 93,7 |
| 2008-2009 | 97,1 | 95,8 | 98,1 | 87,9 | 90,7 | 95,0 | 88,1 | 92,4 | 94,5 |
| 2009-2010 | 97,3 | 97,0 | 98,0 | 89,4 | 92,1 | 95,5 | 90,5 | 91,7 | 95,8 |
| 2010-2011 | 97,7 | 95,9 | 97,9 | 90,4 | 91,1 | 95,7 | 90,4 | 92,1 | 95,6 |
| 2011-2012 | 97,5 | 96,6 | 98,2 | 88,7 | 92,4 | 95,8 | 88,8 | 92,6 | 95,2 |




Iturria: Hezkuntza Ikuskaritza. Eskola-emaitzak 2001-2012.

## Rs4.4 taula eta grafikoa:

**LHko 6. mailan eta DBHko 2. eta 4. mailetan eskolatuta dauden ikasleen artean, ebaluazio diagnostikoetan neurtutako konpetentzia finkoei zuzen loturiko arloetan[7] egoki aurreratzen/gainditzen duten ikasleen ehunekoa. 2000-01 eta 2011-12 ikasturteen arteko bilakaerari buruzko datuak.**

| | Euskal hizkuntza | | | Gaztelania | | | Matematika | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | LH 6 | DBH 2 | DBH 4 | LH 6 | DBH 2 | DBH 4 | LH 6 | DBH 2 | DBH 4 |
| 2000-2001 | 83,7 | 73,1 | 82,4 | 85,0 | 73,0 | 82,0 | 83,6 | 68,7 | 75,8 |
| 2001-2002 | 83,9 | 73,9 | 81,8 | 85,7 | 74,5 | 82,0 | 83,4 | 70,3 | 76,5 |
| 2002-2003 | 84,2 | 73,9 | 82,8 | 86,0 | 73,8 | 82,7 | 84,2 | 69,6 | 76,7 |
| 2003-2004 | 84,9 | 78,3 | 87,4 | 85,8 | 78,2 | 85,7 | 84,2 | 74,5 | 80,9 |
| 2004-2005 | 85,6 | 82,8 | 88,6 | 86,1 | 83,2 | 87,1 | 84,8 | 79,5 | 81,3 |
| 2005-2006 | 85,9 | 83,1 | 88,3 | 88,2 | 83,4 | 86,6 | 86,3 | 79,5 | 81,4 |
| 2006-2007 | 86,4 | 82,7 | 89,0 | 88,0 | 82,8 | 86,7 | 86,1 | 78,0 | 82,5 |
| 2007-2008 | 88,0 | 83,6 | 90,0 | 89,5 | 83,6 | 88,6 | 87,4 | 78,8 | 82,1 |
| 2008-2009 | 87,4 | 83,7 | 89,5 | 90,0 | 83,3 | 88,5 | 87,7 | 79,5 | 82,8 |
| 2009-2010 | 87,6 | 84,9 | 90,2 | 90,5 | 85,1 | 90,0 | 87,2 | 81,0 | 83,8 |
| 2010-2011 | 87,7 | 85,2 | 91,3 | 90,2 | 85,2 | 89,3 | 87,0 | 80,3 | 84,1 |
| 2011-2012 | 87,3 | 84,6 | 91,0 | 90,8 | 84,5 | 89,6 | 87,7 | 79,4 | 84,0 |




Iturria: Hezkuntza Ikuskaritza. Eskola-emaitzak 2001-2012

[7] Euskadiko ebaluazio diagnostikoaren ereduan urtero ebaluatzen diren hiru konpetentzia finko daude (Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak eta matematikarako konpetentzia). Gainontzeko konpetentziak aldatu egiten dira urte batetik bestera (2009: Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzia; 2010: Gizarte eta herritartasunerako konpetentzia)